JUDIMENDI LHI-AN ATARTEKO ZOLADURA ALDATZEKO ETA ESTALKIKO HEGALA KONPONTZEKO LEHIAKETA.

1.- XEDEA: 2006/CONOOR0023 zk. duen dosierra, JUDIMENDI LHI-AN ATARTEKO ZOLADURA ALDATZEKO ETA ESTALKIKO HEGALA KONPONTZEKO.

2.- LEHIA-SARIA: 59.897,25 euro, BEZa barne. Behera eginez hobetu ahal izango dute hori lehiakideek.

3.- GAUZATZE EPEA: bi hilabete.

4.- BERMEAK:

Behin-behinekoa: kontratuaren aurrekontu osoaren % 2, baldintza-agirian aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

Behin betikoa: kontratu prezio osoaren % 4.

5.- KONTRATISTAREN SAILKAPENA: Ez da eskatzen.

6.- DOSIERRA AZTERTZEA: Gasteizko Udaleko Hezkuntza Sailean aztertu ahal izango dira dosierrak –Frai Zacarias Martinez kalea, 3 - 1. solairua; Gasteiz; tel.: 945 161 216, faxa: 945 161 220–, iragarkia Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean agertu ondorengo lehen lanegunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu bitartean.

Helbide honetan ere aztertu ahal izango da: http://www.vitoria-gasteiz.org/

7.- AGIRIAK ESKURATZEA: Arco fotokopia-dendan eskuratu ahal izango dira agiriak –San Antonio kalea, 16; 01005, Gasteiz; telefonoak: 945 232 813 eta 945 140 678; faxa: 945 140 678– astelehenetik ostiralera bitartean goizeko 9:00etatik 13:30era eta arratsaldeko 16:00etatik 19:30era, aurreko atalean adierazitako epe berean.

8.- ESKAINTZAK AURKEZTEA:

LEKUA: Gasteizko udaletxeko Erregistro Nagusian –Espainia plaza, 1. behea– aurkeztu beharko dira eskaintzak.

EPEA: 26 egun natural, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen lanegunera arte luzatuko da epea.

ORDUA: 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

POSTA BIDEZ IGORTZEA: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da.

9.- ESKAINTZAK AGERIAN JARTZEA: B gutun-azalak (jarduteko gaitasuna, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala, behin-behineko bermea) jendaurrekoa izango ez den ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren lanegun egokitzen den lehen asteazkenean, goizeko hamaika eta erdietan (11:30).

A gutun-azalak (eskaintza ekonomikoa eta agiri teknikoak) jendaurreko ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, B gutun-azalak zabaltzen diren egunaren ondoren lanegun egokitzen den lehengo asteazkenean, hamabiak eta laurdenetan (12:15).

10.- ESKAINTZA-EREDUA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK: Baldintza-agirian ageri den eskaintza-eredua baliatuz aurkeztu beharko dituzte eskaintzak lehiakideek, baita hartan zehaztutako agiriak erantsi ere.

11.- LEHIA-IRAGARKI HONEN GASTUEN ORDAINKETA: Esleipena egokitzen zaionaren kontura joango da.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko otsailaren 15ean.– Hezkuntza Saileko Administrazio Kudeaketarako Arloko burua, BEGOÑA ENSUNZA CAMPOS.

CONCURSO OBRAS DE SUSTITUCIÓN DEL PAVIMENTO DEL PORCHE Y REPARACIÓN DEL VOLADIZO DE LA CUBIERTA, EN EL CEP JUDIMENDI.

1º.- OBJETO: Expediente con número 2006/CONOOR0023 para OBRAS DE SUSTITUCIÓN DEL PAVIMENTO DEL PORCHE Y REPARACIÓN DEL VOLADIZO DE LA CUBIERTA, EN EL CEP JUDIMENDI.

2º.- TIPO DE LICITACIÓN: 59.897,25 euros, mejorable a la baja por los licitadores, IVA incluido.

3º.- PLAZO DE EJECUCIÓN: Dos meses.

4º.- FIANZAS:

Provisional: 2% del presupuesto total del contrato, salvo las dispensas previstas en el Pliego de Condiciones.

Definitiva: 4% del precio total del contrato.

5º.- CLASIFICACIÓN DEL CONTRATISTA: No se exige.

6º.- EXAMEN DEL EXPEDIENTE: Los expedientes podrán ser examinados en el Departamento de Educación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, sito en la calle Fray Zacarías Martínez número 3 - 1ª Planta, Vitoria- Gasteiz, teléfono 945 161216, Fax 945 161220, desde el día hábil siguiente a aquél en que aparezca en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y hasta el plazo de presentación de proposiciones.

Asimismo también podrán ser consultados en: http://www.vitoria-gasteiz.org/

7º.- RETIRADA DE LA DOCUMENTACIÓN: La retirada de la documentación podrá realizarse en la Fotocopistería Arco en la calle San Antonio número 16, 01005 Vitoria-Gasteiz. Teléfonos: 945 232 813 y 945 140 678, Fax: 945 140 678 de lunes a viernes en horario de 9:00 a 13:30 y de 16:00 a 19:30 horas., en el mismo plazo señalado en el apartado anterior.

8º.- PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES:

LUGAR: Las proposiciones deberán ser presentadas en el Registro General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, sito en la Plaza de España, 1 bajo.

PLAZO: En el plazo de 26 días naturales contados desde el día siguiente a la publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava. Si el último día fuera sábado o festivo, se trasladará al siguiente hábil.

HORARIO: De 8:30 a 13:00 horas de lunes a viernes.

ENVIO POR CORREO: En las condiciones establecidas en el artículo 80.4 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

9º.- APERTURA DE PROPOSICIONES: La apertura del sobre ‘B’ (capacidad de obrar, solvencia económica, financiera y técnica o profesional, garantía provisional) tendrá lugar en la Casa Consistorial, en acto no público, a las once horas y treinta minutos (11:30 horas) del primer miércoles hábil siguiente al día de terminación del plazo de presentación de proposiciones.

La apertura del sobre ‘A’ (proposición económica y documentación técnica) tendrá lugar en la Casa Consistorial, en acto público, a las 12 horas 15 minutos (12:15 horas) del siguiente miércoles hábil al de la apertura del sobre ‘B’.

10º.- MODELO DE PROPOSICIÓN Y DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR: Los licitadores deberán presentar sus ofertas ajustadas al modelo de proposición previsto en el pliego de condiciones y aportarán los documentos que en el mismo se señalan.

11º.- PAGO DE LOS GASTOS DE ESTE ANUNCIO DE LICITACIÓN: Serán por cuenta del adjudicatario.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de febrero de 2006.– La Jefa de Área de Gestión Administrativa del Departamento Municipal de Educación, BEGOÑA ENSUNZA CAMPOS.

## VITORIA-GASTEIZ

HIRIGINTZA SAILA

*Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketarako Zerbitzua*

**965**

**Miñao Gutxiko 43. Sektorearen Antolamenduko Alorreko Plana.**

Udalbatzak 2005eko azaroaren 30ean egindako ohiko bilkuran, ondorengo erabaki hau hartu zen:

## VITORIA-GASTEIZ

DEPARTAMENTO DE URBANISMO

*Servicio de Planeamiento y Gestión Urbanística*

**965**

**Plan Parcial de Ordenación del Sector 43 Miñano Menor.**

En sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento con de fecha 30 de noviembre de de 2005, se adoptó el siguiente acuerdo:

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Gasteizko Hiri Antolamenduko Planeko Miñao Gutxiko 43. Sektorearen Alorreko Plana, Jesus Maria Llano Loizagak 2005eko irailaren 27an aurkeztutako dokumentazio teknikoarekin bat.

Bigarrena.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitara dadila xedatzea, 1992ko Lurraren Legeko testu berrituko 124. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 70.2 artikuluan arautakoarekin bat.

Hirugarrena.- Ebazpen honek bukaera ematen dio administrazio bideari, eta honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke, zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako epea bi hilabete da, egintza hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

**B DOKUMENTUA: ORDENANTZA ARAUTZAILEAK**

1. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Aplikazio eremua

Ordenantza hauek aplikatu behar dira proiektuko planoetan adierazi den Miñao Gutxiko sektoreko eremuan. Lerro poligonalak zedarritzen ditu muga zehatzak. Lerro horren erpinak bat datoz 006 planoan adierazitako koordenadekin.

Eremuaren azalera, guztira, 8.493,05 m$^2$ da.

2. artikulua.- Edukia

Ordenantza hauek Gasteizko Hiri Antolamenduko Planeko 43. Sektorean (Miñao Gutxiko herriari dagokio) sarturik dauden kalifikazioen erregimena arautzen dute. Era berean, plan hori garatzen duten plangintza tresnek bete beharko dituzten zehaztapenak ere arautzen ditu.

Alorreko plan honek sektore osoko zona banaketa ezarriko du, lehentasunezko erabilerak kontuan izanda.

Ordenantzek honako kapitulu hauek izango ditu:

1.- Xedapen orokorrak
2.- Lurraren hirigintza araudia
3.- Hiritartze proiektuetarako baldintzak
4.- Xehetasunezko estudioen araudia
5.- Lur-sailkatzeetarako baldintzak
6.- Eraikuntzaren eta erabileren ordenantzak
7.- Zona bakoitzerako ordenantza partikularrak

3. artikulua.- Nahitaezkotasuna

Ordenantza honetako artikuluak nahitaez aplikatu beharko dira alorreko planaren eremuan egiten diren jardun guztietan.

4. artikulua.- Gauzatzea

Plangintza etapa bakar batean gauzatuko da.

5. artikulua.- Indarraldia

Ordenantza hauek indarrean sartuko dira alorreko planaren behin betiko onarpena argitaratzen den egunean. Indarraldian jarraituko du mugarik gabe alorreko plan hura barne hartzen duen beste bat atera arte.

6. artikulua.- Dokumentazioa

Ordenantza hauen zati dira alorreko planaren proiektuan idatzitako plano eta dokumentu guztiak. Horietan definituta daude lurrei dagozkienak, erabileraz, eraikuntzaz, helburuez, estetika eta osasun baldintzez... denaz bezainbatean, bai eraikinen aldetik, bai planeko antolamenduan dauden gainerako elementuen aldetik.

Ordenantza hauetan arauturik gelditzen ez diren alderdi guztiei indarrean den Gasteizko Hiri Antolamenduko Planeko hirigintza arauak aplikatuko zaizkie.

7. artikulua.- Dokumentuen irispide arautzailea

Ordenantza arautzaileak eta Proiektuko Planoak dokumentuak dute hirigintzako jarduera erregulatzeko eta arautzeko izaera; beraz, dokumentu horiek ezarritako guztia bete beharko da.

Gainerako dokumentuak azalpenak emateko dira batez ere. Hortaz, aurreko dokumentuekin bat ez datozenean, aurrekoek izango dute lehentasuna.

8. artikulua.- Gauzatze tresnak

Alorreko plan honetako gauzatze tresnak honako hauek izango dira: hiritartze obrak egiteko hiritartze proiektuak; eta eraikuntzak egiteko eraikitze proiektuak.

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan Parcial del Sector 43 Miñano Menor, del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz, con arreglo a la documentación técnica por don Jesús María Llano Loizaga con fecha 27 de septiembre de 2005.

Segundo.- Disponer la publicación del presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, de conformidad con lo previsto en el artículo 124 del Texto Refundido de la Ley del Suelo de 1992 y en los términos prevenidos en el artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Tercero.- La presente resolución pone fin a la vía administrativa y contra ella puede interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación.

**DOCUMENTO B: ORDENANZAS REGULADORAS**

CAPÍTULO 1.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Ámbito de Aplicación

Las presentes ordenanzas son de aplicación en el ámbito del Sector 43 de Miñano Menor indicado en los planos del Proyecto. La delimitación exacta viene definida por la línea poligonal, cuyos vértices responden a las coordenadas reflejadas en el plano 006.

La superficie total del ámbito es de 8.493,05 m$^2$s.

Artículo 2.- Contenido

Estas Ordenanzas regulan el régimen de cada una de las calificaciones del suelo incluidas en el Sector 43 del PGOU de Vitoria-Gasteiz correspondiente al núcleo de Miñano Menor así como las especificaciones que deberán cumplir los instrumentos de planeamiento que lo desarrollan.

El presente Plan Parcial definirá la división en zonas de la totalidad del Sector, conforme a sus usos prioritarios.

Las ordenanzas se estructurarán en los siguientes capítulos:

1.- Disposiciones Generales
2.- Régimen Urbanístico del Suelo
3.- Condiciones para los Proyectos de Urbanización
4.- Regulación de los Estudios de Detalle
5.- Condiciones para las Parcelaciones
6.- Ordenanzas de edificación y usos
7.- Ordenanzas Particulares para cada Zona

Artículo 3.- Obligatoriedad

Los diferentes artículos de las presente Ordenanzas deberán aplicarse obligatoriamente a todas y cada una de las actuaciones que se realicen dentro del ámbito del Plan Parcial.

Artículo 4.- Ejecución

La ejecución del Planeamiento se realizará en una sola etapa.

Artículo 5.- Vigencia

La fecha de entrada en vigencia de las presentes Ordenanzas será el día en el que se publique la aprobación definitiva del Plan Parcial, y su vigencia será indefinida hasta que se apruebe definitivamente otro nuevo que lo abarque.

Artículo 6.- Documentación

Todos los planos y documentos escritos del Plan Parcial forman parte de las presentes Ordenanzas. En ellos se definen todo cuanto afecta a los terrenos, en orden a su uso, edificación, destino, condiciones estéticas, sanitarias, etc., tanto de las construcciones como del resto de los elementos que figuran en la Ordenación del Plan.

Para todos aquellos aspectos no regulados en las presentes Ordenanzas les serán de aplicación las Normas Urbanísticas del vigente PGOU de Vitoria-Gasteiz.

Artículo 7.- Alcance Normativo de la Documentación

Los documentos de “Ordenanzas Reguladoras” y “Planos de Proyecto” son los que poseen carácter normativo y de regulación de la actividad urbanística, debiéndose por tanto cumplimentarse todo lo especificado en ellos.

Todos los demás documentos tienen fundamentalmente carácter explicativo e informativo por lo que en el caso de observarse contradicciones en su contenido con los citados anteriormente, serán aquellos los que prevalezcan.

Artículo 8.- Instrumentos de Ejecución

Los instrumentos de ejecución del presente Plan Parcial serán, Proyectos de Urbanización para la realización de las obras propias de urbanización, y los Proyectos de Edificación para la ejecución de las construcciones.

Eraikuntza proiektuetarako baimena lortu aurretik, xehetasunezko estudioak (beharrezko diren lekuetan) eta hiritartze proiektuak idatzi beharko dira, alorreko plan honek bertan definitutako zonetarako xedaturikoaren arabera.

9. artikulua.- Kudeaketa tresnak

Konpentsazio sistema da Hiri Antolamenduko Planak hasiera batean ezarri duen jardun sistema.

2. KAPITULUA.- LURRAREN HIRIGINTZAKO ARAUBIDEA

10. artikulua.- Kalifikazio orokorra eta xehatua.

Hiri Antolamenduko Planak 43. Sektorerako xedaturiko eremu osoak honako klasifikazio hau du: bizitegietarako lur hiritargarria.

Bizitegitarako erabilera orokorraren erabilera xehatuetako kalifikazioak ondorengo kategoria hauek barne hartzen ditu:

. Familia bakarreko bizitokietarako zona (RU)
. Ekipamendu orokorreko zona (EQ)
. Toki irekiak (ES-LI)
. Erabilera publikoko berdeguneak (ZV)
. Haurrentzako jolas eremuak (AJ)
. Bide sarea (VL)

Kategoria hauetako bakoitza Antolamendu eta lagapen plana: Kalifikazio xehatua izeneko planoan jasota dago. Kategoria horiek zona bakoitzeko ordenantza partikularren idatz zatian daude araututa. Lerrokadurak, sestrak eta kotak planoan doitasunez adierazita daude kalifikazio xehatu bakoitzaren mugak, eremu eraikigarrien eta eremu publiko garrantzitsuenen neurriak zehaztuta.

3. KAPITULUA.- HIRITARTZE PROIEKTUETARAKO BALDINTZAK

*3.1. Ohar orokorrak*

11. artikulua.- Definizioa

Hiritartze proiektuak obra proiektuak dira, eta helburu hau dute: alorreko planean jasotako hainbat xedapen gauzatzea. Batez ere bide sareari (ibilgailuen eta oinezkoen bideak), azpiegitura nahiz zerbitzu sareari (ur hornidura, saneamendua, argindarra, argiak, telekomunikazioak, eta abar) eta erabilera eta jabetza publikoko toki irekiak (berdeguneak, haurrentzako jolastokiak eta erabilera publikoko toki irekiak) egokitzeari buruzko xedapenak dira.

Proiektu horiek lege hauetan xedatutakoa beteko dute: Lurraren Legean (18.3. artikulua), Hirigintza Plangintzako Arautegian (67. artikulutik 70 artikulura) eta Berrikusitako Hiri Antolamenduko Planeko hirigintzako arauetan (2.04.01etik 2.04.02ra eta 3.02.12tik 3.02.14ra bitarteko artikuluetan) xedatutakoa, eta ordenantza hauetan xedatutakoa ere bai.

12. artikulua.- Hiritartze proiektuen eremua 43. sektorean, eta Irisgarritasuna Sustatzeko Legea betetzea

43. sektorea gauzatzeko, hiritartze proiektu bera idatz daiteke jabetza eta erabilera publikoko espazio guztietarako, edo zerbitzu bakoitzari dagozkion alorreko plan ezberdinetarako (edo kapitulu ezberdinetarako). Dena den, eremu osoa hartuko da kontuan, etapa bakarrean egitea aurreikusten baita.

Proiektuak (edo proiektuek) bere barne jasoko ditu (edo dituzte) hornidura iturburutik egin daitezkeen zerbitzuen loturak, nahiz eta eremutik kanpo egon. Hartara, zerbitzu horiek ongi dabiltzala bermatu behar da.

Hartara, nahitaez lege hauek bete beharko dira: Irisgarritasuna Sustatzeko Legea (Eusko Jaurlaritzaren 20/1997 Legea) eta lege hori garatzen duen dekretua (apirilaren 11ko Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretua).

13. artikulua.- Alorreko planeko xedapenek duten lotesletasun maila

Hiritartze proiektuak ezin izango ditu alorreko planeko oinarrizko aurreikuspenak aldatu. Hala ere, aurreikuspen horiek obrak gauzatzeko irizpide eta behar teknikoetara egokitzea onartu ahal izango da. Horretarako, hiru baldintza hauek bete behar dira: a) egokitze hori arrazoitzea; b) alorreko planean kalifikatutako azalerak ez aldatzea; eta c) lurraren edo eraikuntzaren antolamendua eta araubidea ez aldatzea. Azken era horretako aldaketarik izanez gero, alorreko planaren aldaketatzat joko da, eta, beraz, halakotzat izapidetu beharko da, Plangintzako Arautegiko 68. artikuluari jarraituz.

Previa la obtención de licencia de los diversos proyectos de edificación, se deberán redactar los oportunos Estudios de Detalle (donde fueran necesarios) y Proyectos de Urbanización, conforme a las determinaciones establecidas en el presente Plan Parcial para cada una de las zonas en él definidas.

Artículo 9.- Instrumentos de Gestión

El Sistema de Actuación previsto inicialmente, por el Plan General es el de compensación.

CAPÍTULO 2.- RÉGIMEN URBANÍSTICO DEL SUELO

Artículo 10.- Calificación Global y Pormenorizada.

Todo el Ámbito delimitado por el Plan General para el Sector número 43 está clasificado como Suelo Urbanizable Residencial.

La calificación en usos pormenorizados del uso global residencial, comprende las siguientes categorías:

. Zona Residencial Unifamiliar (R.U.)
. Zona de Equipamiento Genérico (E.Q.)
. Espacios Libres (ES-LI)
. Zonas Verdes de Uso Público (Z.V.)
. Áreas de Juego y Recreo Niños (A.J.)
. Red viaria (V.L.)

Cada una de estas categorías, se representa en el plano denominado “Plan de Ordenación y Cesiones: Calificación Pormenorizada”, estableciéndose su regulación en el apartado de Ordenanzas Particulares para cada zona. En el plano de “Alineaciones, Rasantes y Acotado”, se indican con precisión, las delimitaciones de las diferentes calificaciones pormenorizadas, acotándose las dimensiones de las parcelas edificables y de los espacios públicos más importantes.

CAPÍTULO 3.- CONDICIONES PARA LOS PROYECTOS DE URBANIZACIÓN

*3.1. Generalidades*

Artículo 11.- Definición

Los proyectos de Urbanización, son proyectos de obras, cuya finalidad es llevar a la práctica determinaciones contenidas en el Plan Parcial, referidas fundamentalmente a las redes viarias (rodada y peatonal), de infraestructuras y servicios (abastecimiento de agua, saneamiento, energía eléctrica, alumbrado público, telecomunicaciones, etc.) y de acondicionamiento de los espacios libres de uso y dominio público (zonas verdes, áreas de juego de niños, y espacios libres de uso público).

Estos proyectos cumplirán lo establecido en la Ley del Suelo (artículo 18.3); en el Reglamento de Planeamiento Urbanístico (artículo 67 al 70); y en las Normas Urbanísticas del Plan General Revisado (artículo 2.04.01 a 2.04.03; y 3.02.12 al 3.02.14), además de las determinaciones contenidas en las presentes Ordenanzas.

Artículo 12.- Ámbito de los Proyectos de Urbanización en el Sector número 43 y cumplimiento de la Ley para la Promoción de la Accesibilidad

Para la ejecución material del Sector 43 se podrá proceder a la redacción de un único proyecto de urbanización que afecte a la totalidad de los espacios definidos como de dominio y uso público, o bien a distintos proyectos parciales referidos a cada uno de los distintos servicios (o Capítulos distintos), que contemplarán en cualquier caso la totalidad del ámbito dado que se prevé su ejecución en una única Etapa.

El Proyecto o Proyectos, incluirán las posibles conexiones de los distintos servicios, desde las fuentes de suministro, aunque sean exteriores al ámbito del Sector, de manera que se garantice su correcto funcionamiento.

Será de obligatorio cumplimiento, lo establecido en el Decreto 68/2000 de 11 de abril, promulgado por el Gobierno Vasco, que desarrolla la Ley sobre Promoción de la Accesibilidad (Ley 20/1997 del Gobierno Vasco).

Artículo 13.- Grado de Vinculación de las determinaciones del Plan Parcial

El Proyecto de Urbanización, no podrá modificar las previsiones fundamentales del Plan Parcial. No obstante, podrá admitirse la adaptación de aquellas previsiones a criterios y necesidades técnicas de ejecución de las obras, siempre que se justifique dicha adaptación y no signifique modificación de las superficies calificadas por el Plan Parcial, ni alteraciones sobre ordenación y régimen del suelo o de la edificación, adquiriendo en este caso carácter de modificación del Plan Parcial, lo que exigirá previamente su tramitación como tal, de acuerdo con el artículo 68 del Reglamento de Planeamiento.

14. artikulua.- Dokumentazioa

Hiritartze proiektuak Plangintzako Arautegiko 69. eta 70. artikuluetan adierazten diren agiriak izan beharko ditu gutxienez, bai eta telefonoaren edo komunikabideen kanalizazio sarea eta indarrean den Hiri Antolamendu Planeko 2.04.01 eta 2.04.02 eta 3.04.03 artikuluetan ezarritakoa ere.

Halaber, gutxieneko atzera-emateek eta bide zorra, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Erreka Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean zehaztuta, errespetatu beharko dira, zehazki, La Fuente errekari dagokionez.

*3.2. Hiritartze proiekturako diseinu baldintzak*

15. artikulua.- Hiritartze proiekturako diseinu baldintzak

a) Ibilgailuen zirkulaziorako bide sarea:

. Lotesleak dira bide sarearen guztizko neurriak (lerrokadura kontrajarrien artean).

. Galtzaden, espaloien eta aparkaleku zerrenden neurriak 006 planoan (Lerrokadurak, sestrak eta kotak) ageri direnak izango dira; neurri horiek, hain zuzen, Gasteizko Udalak gai horretan dituen irizpideetan oinarritu dira.

. Aparkaleku plazak eta elbarrientzat ezarritako aparkaleku plazak 008 planoan (Bideen sarea) zehaztuta daude. Guztira, 6 plaza ezarri dira, haietako bat, elbarrientzat.

Gutxieneko plaza kopurua: 1.200 m$^2$ / 100 = 12 plaza; lur sailetatik kanpo: % 50, 12 plazatarako = 6 plaza.

. Espaloiak erabat zolatuko dira, txorkoei dagokien zonan izan ezik.

. Zuhaitz lerroa ezarriko da eraikin berrien itxituren alboan. Zuhaitzak jartzeko era eta haien arteko tartea, bai eta txorkoen azalera eta neurriak ere, aldatu ahal izango dira, Oro har, 1,20 x 0,80 metroko neurriak aholkatzen dira txorkoetarako.

. Irisgarritasuna Sustatzeko Legea (Eusko Jaurlaritzaren 20/1997 Legea) eta lege hori garatzen duen apirilaren 11ko Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretua bete beharko dira.

. Ibilgailuak bide publikotik lur sail pribatuko aparkalekuetara sartzeko sarbideak (pasabideak) lehen aipatu den 008 planoan (Bideen sarea) zehaztuta daude. Haien kokalekuak orientatzekoak baino ez dira, eta alda daitezke; dena den, betiere kontuan izango da aldatzeak zuhaitzen, hustubideen eta zerbitzuetako hartuneen kokalekuetan izango duen eragina.

. Bide gorriak (bizikleta bideak) eta garraio publikoarekin zerikusia duten eremuak egiteko aukera aztertu ahal izango da, betiere udaleko zerbitzu teknikoek agindutakoa errespetatuz.

b) Oinezkoentzako pasealekuen edo erabilera eta jabetza publikoko toki irekien sarea:

. Lotesleak dira guztizko neurriak (lerrokadura kontrajarrien artean).

. Eremu horietan zuhaitzak sartzea gomendatu egiten da; gainera, zuhaitz batetik besterako tartea eta txorkoen azalera eta neurria egokitu ahal izango dira. Dena den, txorkoak ezingo dira 1,25 x 0,80 m baino txikiagoak izan.

. Hiri altzariak (bankuak, paperontziak, eta abar) jarriko dira, egokiera librean, baina betiere lerro bati jarraituz eta, oinezkoen pasagune izanik, horientzat ez dutela oztopo izan behar kontuan hartuta.

. Lorategiak, parterreak eta txorkoak edo haurrentzako jolastokiak ez, beste espazio guztiak zolatu egingo dira, zoladura egokia jarrita.

c) Berdegunea eta haurrentzako jolastokiak:

. Lotesleak dira berdeguneko eta haurrentzako jolastokietako guztizko neurriak.

. Haurrentzako jolastokietan dagozkion hiri altzariak eta jolas aparatuak jarri beharko dira, eta eremu horrek erabilera horretarako eta ez bestetarako zolaturik egon behar du.

. Haurrentzako jolastokietan zuhaitz aproposak jarri behar dira; batez ere hostogalkorrak, eguzkitatik babestearren.

. Haurrentzako jolastokiek Haurrak eta Jolastokiak Babesteko Neurriei buruzko Dekretua (Eusko Jaurlaritzaren 1983ko uztailaren 11ko 175/1983 Dekretua) bete beharko dute.

. Berdeguneari tratamendu libreagoa emango zaio; hala, bada, oinezkoek zein ibilbide egingo dituzten kontuan hartuta prestatuko di-

Artículo 14.- Documentación

El Proyecto de Urbanización deberá comprender como mínimo los documentos indicados en los artículo 69 y 70 del Reglamento de Planeamiento, incluyendo además la red de canalización telefónica o comunicaciones, así como lo establecido en los artículo 2.04.01, 2.04.02 y 3.04.03 del Plan General vigente.

Asimismo deberá respetar los retranqueos mínimos y la servidumbre de paso señalada en el P.T.S. de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos, de la C.A.P.V., en el caso concreto del arroyo “La Fuente”.

*3.2. Condiciones de Diseño para el Proyecto de Urbanización*

Artículo 15.- Condiciones de diseño para el Proyecto de Urbanización.

a) Red Viaria rodada:

. Son vinculantes las dimensiones totales (entre alineaciones opuestas) de la red viaria.

. Las dimensiones de las calzadas, aceras y bandas de aparcamiento son las que figuran en el plano 006 de “Alineaciones, Rasantes y Acotado”, basadas en los criterios del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz al respecto.

. En el plano 008 de “Red de Viales” se definen las plazas de aparcamiento y las reservadas para minusválidos. Se han dispuesto un total de 6 plazas una de ellas para minusválido.

Número mínimo de plazas: 1.200 m$^2$/100 = 12 plazas, fuera de las parcelas: 50% s/12 plazas = 6 plazas.

. Las aceras irán pavimentadas en su totalidad, salvo en la zona correspondiente a los alcorques.

. Se ha dispuesto una hilera de arbolado junto al cierre de las nuevas edificaciones, pudiendo alterarse la disposición y separación entre los árboles así como la superficie y dimensión de los alcorques, cuya dimensión recomendada como norma general es de 1,25 x 0,80 m.

. Deberá adoptarse la Ley 20/1997 del Gobierno Vasco, sobre Promoción de la Accesibilidad y el Decreto 68/2000 de 11 de abril que la desarrolla.

. Los accesos rodados a los aparcamientos de las parcelas privadas, desde el viario público (vados) se señalan en el citado plano 008 “Red de Viales”. Su situación es orientativa pudiendo modificarse, pero siempre teniendo en cuenta su repercusión en la ubicación del arbolado, sumideros y acometidas de servicios.

. Se deberá estudiar, de acuerdo con las indicaciones que los Servicios Técnicos Municipales puedan concretar, la posibilidad de proyectar carriles-bici, así como otras decisiones relacionadas con el transporte público.

b) Red de Paseos Peatonales o espacios Libres de Uso y Dominio Público:

. Son vinculantes las dimensiones totales (entre alineaciones opuestas).

. El tratamiento de arbolado se considera recomendable pudiendo adaptarse su disposición, así como la superficie y dimensión de los alcorques, que en ningún caso será inferior a 1,25 x 0,80 m.

. Se dotará de mobiliario urbano (bancos, papeleras, etc.) en disposición libre, pero teniendo en cuenta el carácter lineal y su función de circulación peatonal, que no debe obstaculizar.

. Salvo los espacios ocupados por jardines, parterres y alcorques o juegos de niños, el resto irá pavimentado adecuadamente.

c) Zona Verde y Áreas de Juegos de Niños:

. Son vinculantes las dimensiones totales de la zona verde y de las áreas de juego de niños.

. Las áreas de juego de niños deberán dotarse del mobiliario urbano correspondiente y aparatos recreativos, debiendo estar pavimentadas de acuerdo con su uso específico.

. Las áreas de juego de niños, se dotarán de arbolado adecuado, colocándose preferentemente de hoja caduca, en control del soleamiento.

. Las áreas de juego de niños deberán cumplir el Decreto 175/1983 de 11 de julio del Gobierno Vasco, sobre “Medidas de Protección Infantil y Zonas de Recreo”.

. La Zona Verde, deberá tener un tratamiento más libre, con sendas según itinerarios peatonales previsibles, y grandes áreas de cés-

ra bidezidorrak, soropil eremu handiak ereingo dira, topografiaren berezko uhindurari moldaturik, eta zuhaitz ugari landatuko da, era irregularrean banatuta, gune naturalen tankera emateko moduan.

*3.3. Hiritartze proiekturako baldintza teknikoak*

16. artikulua. Hiritartze obra guztietarako.

Hiritartze obrak indarrean dagoen eta nahitaez bete beharreko sektoreko arauetara egokituko dira, bai eta zerbitzu bakoitza hornitzen duen enpresen arauetara, eta udaleko zerbitzu teknikoek guztientzat ezarritakoetara ere.

Azpiegitura zerbitzuei dagozkien sare eskemen planoetan adierazitako trazatuak eta neurriak gutxi gorabeherakoak dira. Beraz, aldaketak izan ditzakete —inoiz ere ez funtsezkoak— behar bezala arrazoituta, hiritartze proiektuari dagokion doitasun handiagoko azterketa eta kalkuluaren ondorioz.

Hiritartze proiektu hori fase bakarrean gauzatzeko moduan taxutuko da. Hala eta guztiz ere, eta sektoreko konpentsazio batzordeak egoki baderitzo, hiritartzearekin batera eraiki ahal izateko, hiritartze lanak hainbat etapatan egitea aztertu ahal izango da.

Hiritartze proiektua izapidetzeko eta onartzeko, dagozkion agiriez gain, beste hauek ere aurkeztu beharko dira: alorreko plana behin betiko onartzen dela adierazten duen ofizioa, eta antolamenduari, bide sareari eta alorreko planoko azpiegituren sareen eskemari dagozkien planoak.

Orobat, kontuan hartu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Erreka Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko (mediterranear isurialdea) baldintzak.

Obra edo zerbitzu mota bakoitza kapitulu bereizia izango da (proiektu bereiziak ere izan daitezke) hiritartze proiektuaren barruan. Proiektu horretan ordenantza hauetako 14. artikuluan aipatutako agiriak jaso beharko dira.

Hiritartze obrak berak gauzatzeari ekin aurretik, landare lurrezko goiko geruza kendu eta gorde egingo da zolatu beharreko eremu guztietan, gero landare lur hori berdeguneetan erabili ahal izateko.

Zerbitzuetako azpiegitura sareei buruzko proiektuetan, kontuan hartu behar dira instalazioen artean egon behar duten gutxieneko tarteak, eta geroko zuhaitzen zuztarren eragina.

Ahal dela, berdeguneetan, zolaturik ez dauden tokietan, ez da zerbitzuen azpiegitura sarerik jarriko. Izan ere, horrela kontserbatuko da hobekien azpiegitura sarea.

17. artikulua.- Ibilgailuen zirkulaziorako eta oinezkoentzako bide sarerako hiritartze proiektuaren baldintza teknikoak

- Hiritartze proiektuak ezarriko ditu bide sareari dagozkion baldintza zehatzak, alorreko planeko zehaztapenetan oinarriturik.

- Bideen zoladuraren proiektua, kalkulua eta neurriak zehaztetrakoan, indarrean dagoen arautegia aplikatuko da, bai eta Gasteizko Udalak orokortasunez onartutako irizpideak ere, inguruko eremuekin bat etorri ahal izateko.

- Ibilgailuentzako zirkulazio galtzadak T-2 zirkulazio motarako onartutako arautegira egokituko dira (1975ko 6-1-IC eta 6.2.IC. arauak).

- Ibilgailuentzako eta oinezkoentzako bideetan nahitaez hirigintzako trabak kentzeari buruzko araudia (Eusko Jaurlaritzaren 1997ko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta lege hori garatzen duen 2000ko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua) bete beharko da.

- Zolatu beharreko espaloiak eta oinezkoentzako zonak behar bezala prestatutako lur gainean asentatuko dira, eta honako hauek ezarriko dira: zelaigune hobetua edo oinarri pikorkara; hormigoizko zolarria (gutxienez, 10 cm-ko lodiera, eta lodiera handiagoa ibilgailuak igaroko direla aurrez ikusitako zerrendetan) eta zoladura gogorra (baldosa edo antzekoa). Zabaltzeko eta uzkurtzeko juntura egokiak jarriko dira.

- Oinezkoentzako eremuei akabera ematerakoan, ondorengo hau hartuko da kontuan (akabera hori eskatzen duten eremuetan): urraduraren kontrako erresistentzia; garbiketa eta aldaira ibilgailuak, suhiltzaileen ibilgailuak eta horrelakoak bertatik noizean behin pasatzeko erresistentzia; izotzaren kontrako erresistentzia; ura edo izotza denean izango den irristakortasuna; matxurak direnean erraz konpontzeko aukera; apaindura kalitatea; eta garbitzeko erraztasuna.

- Oinezkoentzako pasealekuetan egiten diren loretegietan, berdeguneetarako agindutakoa bete beharko da.

ped, adaptado a la ondulación de la topografía natural y abundante arbolado irregularmente distribuido, que confiera un carácter de espacio natural.

*3.3. Condiciones Técnicas para el Proyecto de Urbanización*

Artículo 16.- Común a todas las obras de Urbanización

Las obras de urbanización se adaptarán a la normativa sectorial vigente de obligatorio cumplimiento, así como a la propia de las empresas suministradoras de cada servicio, y a las establecidas con carácter general por los servicios técnicos municipales correspondientes.

Los trazados y dimensionamientos indicados en los planos de esquemas de redes de los distintos servicios de infraestructura tienen carácter indicativo, pudiendo por tanto sufrir modificaciones -nunca sustanciales- debidamente justificadas, como consecuencia del estudio y cálculo con mayor precisión que compete al Proyecto de Urbanización.

Este Proyecto de Urbanización contemplará su ejecución en fase única. Sin embargo, y de así considerarlo la Junta de Compensación del Sector con el fin de simultanear la edificación con la urbanización, se podrán estudiar etapas distintas para la ejecución de la urbanización.

Para la tramitación y aprobación del Proyecto de Urbanización, serán presentados además de su documentación propia, el oficio de aprobación definitiva del Plan Parcial; planos de ordenación, red viaria y esquema de redes de infraestructuras del Plan Parcial.

Se tendrán en cuenta las exigencias del “Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Vertiente Mediterránea)”.

Cada clase de obra o servicios, constituirá un capítulo independiente (pudiendo ser proyectos independientes) del Proyecto de Urbanización que contendrá los documentos indicados en el artículo 14 de estas Ordenanzas.

Previamente al inicio de la ejecución de las obras de urbanización propiamente dichas, se procederá a la retirada y acopio de la capa superior de tierra vegetal, de todas las áreas que vayan a ser pavimentadas, para su posterior aprovechamiento en zonas verdes.

En los proyectos referidos a redes de infraestructuras de servicios, se tendrán en cuenta las condiciones mínimas de separación entre distintas instalaciones, así como la afección futura por raíces del arbolado.

Se procurará evitar el trazado de redes de infraestructuras de servicios por zonas verdes, que no vayan pavimentadas como garantía de su mejor conservación.

Artículo 17.- Condiciones técnicas del Proyecto de Urbanización para la Red Viaria rodada y peatonal

- Las condiciones concretas respecto a la red viaria serán las que determine el oportuno Proyecto de Urbanización sobre la base de las especificaciones contenidas en el Plan Parcial.

- Para el proyecto, cálculo y dimensionamiento de la pavimentación de los viales, será de aplicación la normativa vigente y por razones de uniformidad con otras áreas próximas, los criterios adoptados con carácter general por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

- Las calzadas de tráfico rodado se adaptarán a la normativa para tráfico tipo T-2 (Instrucciones 6.1.IC y 6.2.IC de 1975).

- Será obligatorio en el viario peatonal y rodado, el cumplimiento de la normativa sobre supresión de barreras urbanísticas Ley 20/1997 del Gobierno Vasco y Decreto 68/2000 de 11 de abril, que la desarrolla.

- Las aceras y zonas peatonales a pavimentar, irán asentadas sobre superficies debidamente preparadas, como explanada mejorada o base granular; solera de hormigón (con espesor mínimo de 10 cm y mayor en bandas de previsible paso de vehículos) y pavimento duro (baldosa o similar). Se colocarán las juntas de dilatación y retracción adecuadas.

- El pavimento de acabado en las áreas peatonales que lo requieran, deberá proyectarse teniendo en cuenta: la resistencia a la abrasión; la resistencia a cargas propias del paso eventual de vehículos de limpieza, mudanzas, vehículos de bomberos, etc.; su heladicidad; su deslizamiento ante la presencia de agua o hielo, etc.; su fácil reposición en caso de reparaciones; su calidad ornamental y su fácil limpieza.

- En las áreas ajardinadas que pudieran proyectarse en los paseos peatonales, se estará a lo indicado para las zonas verdes.

- Gutxieneko hiri altzari egokiak jarriko dira, ez oinezkoen ez ibilgailuen zirkulazioa galaraziko ez duten altzariak, alegia.

18. artikulua.- Erabilera publikoko toki irekietarako hiritartze proiektuaren baldintza teknikoak.

- Aurreko artikuluan espaloietarako eta oinezkoentzako pasealekuetarako, eta lorategietarako ezarritako guztia aplikatuko da toki ireki horietan ere. Hori guztia berdegune eta lorategien hiritartze proiektuaren baldintza teknikoetan zehazturik dago.

19. artikulua.- Hiritartze proiektuaren baldintza teknikoak edateko uraz hornitzeko sarerako, ureztatzeko sarerako eta suteen kontrako ur hartuneen sarerako

- Kontuan hartu behar dira baldintza hauek: a) NTE-IFA/1975 delakoan ezarritako baldintza teknikoak; c) Industria Ministerioak 1975eko abenduaren 9an ezarritakoak; d) 1979ko martxoaren 15eko Espainiako Gobernu Presidentetzaren 928/1979 Dekretuko baldintzak; e) AMVISAk onartutako irizpide orokorrak.

- Sarea kalkulatzeko, gutxieneko hornidura izango da 250 litro biztanle eta egun bakoitzeko. Hau izango da aurrez kalkulatuko den gehieneko kontsumoa eguneko: batez besteko indizea baino 2,5 bider gehiago.

- Oinezkoentzako pasealekuak eta eremu guztiak (bide sarea, erabilera publikoko toki irekiak eta oinezkoentzako ibilbideetan dauden bidezidor nagusiak) ureztatuz garbitzea ahalbidetuko da.

- Berdeguneetan bai eta halakotzat tratatutako eremuetan ere, ureztatzea bermatzeko behar besteko instalazioak jarriko dira, eguneroko kontsumoa 15 $m^3$/ha-koa izango dela kalkulatuta. Udalak onartutako modeloko ureztatzeko ur hartuneak ipiniko dira, haien artean ura eremu osora iristeko moduko tartea utzita.

Berdegune garrantzitsuenetan ureztatze sare automatikoa jarriko da, eta adar hasieran, kontagailua.

- NBE-CPI-96 Arauarekin bat, suteetarako ur hartuneak jarriko dira, erabilera publikoko bideetatik 200 metrora gutxi gorabehera.

- Behar diren hustubideak egingo dira sarearen behealdean, konponketak egin behar direnean bertatik ura husteko. Hustubide horiek eurien saneamendu sarera edo La Fuente errekara eramango dira zuzenean.

- Proiektuaren barne sartu behar dira sektoretik kanpo den sarearekin izan beharreko loturak eta konexioak, behar bezalako funtzionamendua bermatzeko beste.

20. artikulua.- Hondakin uren saneamendu eta ebakuatze sarerako hiritartze proiektuaren baldintza teknikoak.

- NTE-ISA/1973 Arau Teknologikoa eta indarrean dauden gainerako arauak aplikatuko dira, bai eta Gasteizko Udalak onartutako irizpide orokorrak ere.

- Sekzioak 0,5 eta 3 m/s bitarteko abiadurarako kalkulatuko dira. Abiadura hori gehitu egin daiteke estaldura gogorreko hodiak erabiltzen direnean, egoerak hala eskatzen badu.

- Erregistro putzuak jartzean, batetik bestera, gehienez ere, 50 eta 55 metro bitarteko tartea utziko da, behar bezala arrazoitutako kasu berezietan izan ezik.

- Saneamendua urak bereizita egingo da, eta euri urak eta drainatze urak iparraldean den La Fuente errekara isurtzeko aukera azter daiteke (materia solidoak dekantatu ondoren).

- Ur beltzen saneamenduaren hermetikotasuna arreta handiz zainduko da aipatutako errekaren inguruan, erreka kutsa ez dadin.

21. artikulua.- Argindarrez hornitzeko hiritartze proiektuaren baldintza teknikoak.

- Aplikagarri izango dira honako lege testuok: Tentsio Txikiko Arautegi Elektroteknikoa; jarraibide osagarriak (MI/BT-73); indarrean diren bete beharreko gainerako arauak; eta zerbitzuaren hornikuntza ematen duen konpainiak (Iberdrola) eta Gasteizko Udalak onartutako irizpideak.

- Eraikuntzak hornitzeko banaketa tentsioa 380/220 W izango da.

- Argindarrak kanalizazio bakarra izango du eta behe tentsioko hodiak eta, halakorik denean, goi tentsioko hodiak zanga berean sartuko dira, elkarren ondoan eta paraleloan doazenean.

22. artikulua.- Herriko argietarako hiritartze proiektuaren baldintza teknikoak.

- Indarrean dauden arauak aplikatuko dira, bai eta Iberdrolak eta Gasteizko Udalak onartutako irizpide orokorrak ere.

- Se dotarán del mobiliario urbano mínimo adecuado, que no obstaculice el tránsito peatonal, ni de vehículos en su caso.

Artículo 18.- Condiciones Técnicas del Proyecto de Urbanización para los espacios Libres de Uso Público

- Será de aplicación todo lo establecido en el artículo anterior para las aceras y paseos peatonales; y a las ajardinadas, lo que se determina en el correspondiente a condiciones técnicas para el Proyecto de Urbanización de Zonas Verdes y Jardinería.

Artículo 19.- Condiciones Técnicas del Proyecto de Urbanización para las Redes de Abastecimiento de Agua, Riego e Hidrantes para Incendios

- Se deberán tener en cuenta las condiciones de tipo técnico establecidas en la NTE-IFA/1975; las del Ministerio de Industria de 9 de diciembre de 1975; el Decreto 928/1979 de 15 de marzo de la Presidencia del Gobierno y demás normativa vigente, además de los criterios generales adoptados por A.M.V.I.S.A.

- Las dotaciones mínimas a efectos del cálculo de la red serán de 250 litros/habitante/día, previéndose un consumo máximo diario de 2,5 veces el resultante mediante el índice indicado como medio.

- Se posibilitará el riego para limpieza de todas las áreas y paseos peatonales (red viaria, espacios libres de uso público y sendas significativas en itinerarios peatonales).

- En todas las zonas verdes y áreas tratadas como tales, se establecerán las instalaciones suficientes para un consumo diario de 15 $m^3$/hect., colocándose bocas de riego del modelo adoptado por el Ayuntamiento y a distancia adecuada que garantice la cubrición de toda el área.

En las principales zonas verdes, se colocará red de riego de tipo automático y contador en el inicio de la derivación.

- Se colocarán hidrantes para incendios (según la Norma NBE-CPI-96), a distancia aproximada orientativa de 200 m medidos por las vías de uso público.

- Se dispondrán los desagües necesarios en puntos bajos de la red para su vaciado parcial en caso de reparaciones, directamente conectados a la red de saneamiento de pluviales o con vertido al arroyo “La Fuente”.

- Se deberán incluir en el Proyecto los empalmes y conexiones necesarios con la red existente exterior al ámbito del Sector, que fueran necesarios para garantizar un correcto funcionamiento.

Artículo 20.- Condiciones Técnicas del Proyecto de Urbanización para la Red de Saneamiento y Evacuación de aguas Residuales

- Será de aplicación la Normativa Tecnológica NTE-ISA/1973 y demás normativa vigente, además de los criterios generales adoptados por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

- El cálculo de secciones garantizará una velocidad entre 0,5 y 3 m/seg pudiendo aumentar ésta en el caso de tuberías de gran dureza de revestimiento si las circunstancias así lo aconsejaran.

- Se dispondrán como norma general pozos de registro con distancias máximas del orden de los 50-55 m., salvo casos puntuales debidamente justificados.

- El saneamiento será separativo, pudiendo estudiarse la posibilidad de verter aguas pluviales y drenajes (previa decantación de materias sólidas), al arroyo “La Fuente” que discurre por la parte Norte.

- Se cuidará especialmente la estanqueidad del saneamiento de fecales, en áreas próximas al citado arroyo, en evitación de su contaminación.

Artículo 21.- Condiciones Técnicas del Proyecto de Urbanización para el Suministro de Energía Eléctrica

- Será de aplicación el Reglamento Electrotécnico de Baja Tensión; las Instrucciones complementarias (MI/BT-73) y demás normativa obligatoria vigente, además de los criterios adoptados por la compañía suministradora del Servicio (Iberdrola) y por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

- La tensión de distribución para el suministro a las edificaciones será de 380/220 W.

- Las canalizaciones eléctricas serán únicas, metiendo en la misma zanja todos los tubos de baja tensión y en su caso de alta tensión, cuando discurran paralelos y próximos.

Artículo 22.- Condiciones Técnicas del Proyecto de Urbanización para el Alumbrado Público

- Será de aplicación toda la normativa técnica vigente, además de los criterios establecidos tanto por Iberdrola, como por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

- Linea elektrikoa lurpetik joango da. Batez beste, kutxatila batetik bestera 40 metro inguruko distantzia izango da; gainera, sareko argi paldo edo zutabeetarako behar den adina kutxatila jarriko da.

- Bide publikoetan egin beharreko batez besteko argia, aurrez ikusitako batez besteko zirkulazioaren (ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa) arabera eta erabileraren (haurrentzako jolastokiak, berdeguneak) arabera kalkulatuko da.

Datu orientagarri moduan, batez beste 30 lux jarriko dira gune publiko guztietan (batez ere, ibilgailuen zirkulaziorako bideetan), baina haurrentzako jolastokietan, oinezkoentzako bide ardatzetan eta gune publikoetan eta berdeguneetan gutxiago ere jar daiteke. Homogeneotasun koefizientea 0,6 izango da.

Energia aurrezteko, gaueko 12:00etatik aurrera argi gutxiago kontsumitzeko tresnaren bat jarriko da jende gutxi ibiltzen den zonetan, edota argi kutsadura saihesteko edo murrizteko irtenbideren bat aurkituko.

Ibilgailuen zirkulaziorako bideen elkarguneetan, elkarturiko bide argiztatuenean baino argi gehiago jar daiteke, % 10etik % 15era bitartean gehituta.

- Gerora begira, kontuan hartu beharko da zuhaitzak noraino haziko diren, kale-argi horien zutabeak eta argiak nolako garaieran jarri behar diren jakiteko.

23. artikulua.- Gas naturalaren banaketa sarerako hiritartze proiektuaren baldintza teknikoak

